

Uztartza, berriro zabalik

Bi asteasuarrek
hartu dute ▶ 4



Aralarko trikuharriak ezagutzera emateko

ONDAREA ▶ Panelak jarri dituzte sarrera puntuetan Aralarko ondare megalitikoaren berri emateko

AMEZKETA ▶ Amezketan bi trikuharri daude, Larrondon eta Urritzan; Gipuzkoan 250 daude ▶ 5



Etxebizitza tutelatuak eta ur deposito berria, martxan

BELAUNTZA ▶ *Martintxo* baserrian —argazkian— bi etxe tutelatu egokitzen hasiko da laster Udala, adinekoentzat, baztertuentzat edo beharra dutenentzat. Kutxazabalen 30.000 euroko laguntza eta Foru Aldunditik ere laguntza jasoko du proiektu honek, Hurbiltzen programatik. Bestalde, ur depositoarekin ur

arazo handiak izan dituzte Belauntzan, tuberiak zaharrak zeudleako eta ur asko galtzen zelako. Udan kamioiak erabili behar zituztelako gainera. Baina laster konpontzekoak dira arazo hauek, ur deposito berria hasi direlako egiten. Etxeen eta ur depositoaren lanek sei hilabete iraungo dute. INIGO TERRADILLOS ▶ 6

TOLOSA ▶

Ttanttaka taldearen antzezlanari bihar

Leidorren 'Paradero desconocido' eskainiko du ▶ 2

TOLOSA ▶

Pezeta zaharrak Indiaren alde

Santa Mariako katekesiakok bilduko dituzte ▶ 3

LEITZA ▶

Hamabi etxe berri egingo dira Landa Behikoan

Orubeak egin dituzte jada; lurrazpiko garajeak dituzte ▶ 7

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **GORROTXATEGI Edertasun Zentruak** oparitutako
 - LPG (loditasuna tratatzeko saioa)
 - Laser bidezko depilazio saioa zozketatuko ditugu

KULTURA ▶

Nazismoari kritika egiten dion antzezlan, bihar, Leidorren

22:30ean hasiko da Ttanttaka Teatroak ekoiztutako 'Paradero desconocido' lana; sarrerak salgai dira: alde zuzenetik Kultur Etxean eta emanaldi garaian leihatilan

EZAUGARRIAK ▶

Liburuaren egilea. Kathrine Kressmann Taylor.

Jatorrizko izenburua.

Address unknown.

Antzerkiaren izenburua.

Paradero desconocido.

Itzulpena. Carmen Gonzalez-

Aguilar eta Maria Schjaer.

Dramaturgia. F. Bernues.

Musika. Pello Ramirez eta Iñaki Salvador.

Antzezleak. Kike Diez de Rada, Isidoro Fernandez;

Pello Ramirez (biolontxelo) eta Iñaki Salvador (piano).

Zuzendaritza. F. Bernues.

Eszenografia. Fernando Bernues eta Edi Naudo.

Argiztapena. Xabier Lozano.

Jantziak. Eli Elizondo.

Talde teknikoa. Jaime Sagastibeltza eta Txema Gonzalez.

Argazkiak. Manuel Diaz de Rada.

Diseinu grafikoa. G & Z eta Edi Naudo.

Banaketa. Julio Perugorria.

Produktzioa. Ttanttaka Teatroa SL.

ANTZERKIA ▶

Gaia. *Paradero desconocido.*

Eguna. Bihar, ostirala.

Ordua. 22:30.

Herria. Tolosa.

Tokia. Leidor zinema aretoa.



'Paradero desconocido' lana eskainiko dute bihar Leidorren. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

1932. Martin Schulse alemaniarra eta Max Eisenstein judutar estatubatuarrek harreman estua dute, eta San Franciscoko (California, AEB) arte galeria batean lankide dira. Martin Schulsek bere herrialdera itzultzea erabaki du, senitartekoekin egoteko. Bienbitartean, Max Eisenstein San Franciscon geratzen da, bien negozioa aurrera eramateko asmoarekin. Elkarri idatziko diotela egin dute zin, eta banatzen diren une berean hasten dira horretan, anaiak bailiran maite baitute elkar.

1933. urte hasieran Alema-

nian, Hinderburg-ek kantziller berri bati utzi dio boterea: Adolf Hitler nazional-sozialistari. Hirugarren Reich-aren garaian —Hitlerrek *das Dritte Reich*, hirugarren inperioa deitu zion bera boterean egon zen aldiari— zentzu iluna hartzen dute Schulse-ren eta Eisenstein-en gutunek. Ordura arteko albiste gozoen lekuko hartzen du izugarrikeriak berak. Itzuli historiko hori haien adiskidetasunaren kalterako izango da. Izan ere, Alemania naziaren tragedia kontatuko dute aurrerantzean haien eskutitzek, eta orri zurietan islatuta geratuko dira, istorio lazgarriak ez ezik, gizakiak biktima eta borroro

izateko duen baldintza susmaezina ere. Bat-bateko argazkiak balira bezala.

Era ameslari, baina zorrotzean idatzita, 1938an argitaratu zuten lehen aldiz *Paradero desconocido* lana, eta denbora gutxian maisulan izendatu zuten. 1939an, *The New York Times Book Review*-k hala zioen: «Istorio hau perfekzioa bera da. Aurrez inoiz agertutako salaketa biribilena egiten du nazismoaren gainean». Horrez gain, zera ere bada, ordea, antzezlaren ekoizleen esanetan: «Gaurkotasunezko idatzia da, herritarrei abisu emateko balio duena; zeren eta Europar gaur egun ere badira itsutsuan batera eta bestera dabilzan korronteak».

Sarrerak Kultur Etxean

Paradero desconocido antzezlan 22:30etik aurrera eskainiko dute bihar Leidor zinema antzokian. Kide Diaz de Rada eta Isidoro Fernandez aktoreek kontatuko dituzte Martin Schulse alemaniarren eta Max Eisenstein judutar estatubatuarren bizipenak, eta eszenatikian lagun izango dituzte Pello Ramirez eta Iñaki Salvador, biolontxelojolea eta pianojolea, hurrenez hurren. Antzerkirako sarrerak Kultur Etxean dira salgai honezker, eta emanaldiaren egunean leihatilan ere izango dira.

POLITIKA ▶

Borroka Eguna deitu du bihar Segi gazte erakundeak

Espainiako estatuak egindako «erasoei» aurre egiteko egingo dituzte mobilizazioak

I. ETXEBESTE

«Urteak igaro dira Jarrai-Haika-Segi gazte erakundeak Espainiako estatu faxistak ilegaltzat hartu zituenetik eta hainbat gazte kartzelatu zituztenetik. Orain gutxi 654 urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak. Gure herriaren alde borroka egiteagatik euskal gazteria kriminalizatu nahi dute, guztiz neurritz kanpoko eskaera fiskal horiekin.» Segiko kideek diote hala ere lanean jarraituko dutela. «Euskal Herriaren eskubideen onarpenean aurrera jarraitzea ahalbidetzen duen egoera politikora heldu arte». Gazteek borrokan jarraitzen dutela erakusteko, eta «eraso horiei erantzuteko», Borroka Eguna deitu dute biharko, Euskal Herri osoan. Tolosaldean, 11:00etatik aurrera geldialdiak deitu dituzte ikastetxeetan, eta eguerdian manifestazioa egingo dute Tolosako Triangulotik abiatuta. Arratsaldean, eskualdeko manifestaziora deitu dute Villabonan, herriko plaza 20:00etan aterata.

ZINE-KLUBA ▶

'Lost in translation' filma gaur Leidorren

I. ETXEBESTE

Sophie Coppolaren *Lost in translation* filma eskainiko dute gaur, osteguneroko zine-klubaren baitan, Leidor zinema antzokian 21:30etik aurrera. AEBetarik Tokyora (Japonia) doaz AEBetako Bob Harris eta Charlotte. Harris zinema izarra da, eta Charlotte bere gizonari laguntzera joan da bertara. Hoteleko kafetegian topo egin, eta adiskide bilakatuko dira, eta Tokyoko kaleetan zehar ibiliko dira japoniarren bizimodua eta ohiturak ezagutzeko.

Leidor Aretoa - TOLOSA

Urtarrilak
14
ostirala
22:30

Paradero desconocido

TOLOSAKO UDALA

tan ita ka

Leidor Aretoa - TOLOSA

Txan Magoa
Gari, Montxo eta Joxe Lontxo
Elvi

Urtarrilak
15
larunbata
17:00

TOLOSAKO UDALA

ELKARTASUNA ▶

LEIRE MONTES

Vedrera Samajik Kendra Indiako Gobernuak onartutako eta egiaztatutako erakundea da. Haurren eta emakumeen heziketaz, osasunaz eta formazioaz arduratzen da. Izan ere, egoera oso larria da». Eukeri katekistaren hitzoi adi aurkitu zituen HITZAK Santa Mariako katekesiko 6. mailako gaztetxoak. Indiako egoeraren berri jakin, eta «laguntzeko zerbait egin behar» zutela erabaki zuten. Horretan aritu dira buru belarri Helene Ezkiaga, Igone Arregi, Nerea Andres, Eneritz Garro, Miriam Gordo, Maria Asenjo, Jon Otegi, Alazne Ezeiza, Maialen Artano eta Leire Artola.

Zer bururatu zaien? Lehen erabiltzen ziren pezetak biltzea. «Ordizian egindako feria batean ikusi genuen, eta ideia polita iruditu zitzaigun. Haur Misiolariaren Astearen baitan ekintzaren bat antolatzea zen gure asmoa. Beti dirua eskatzen ari garela iruditzen zaigu. Horregatik, beste era horretan egitea pentsatu genuen: ziur etxe askotan badaudela oraindik lehengo pezetak; guri ez digute ezertarako balio, baina laguntza handia eskaini diezaiokegu jende askori txanpon zahar horiek bilduz», azaldu du katekistak.

Asteartean, hilaren 18an, egingo dute bilketa. Pezetak eman nahi dituenak, 18:00etatik aurrera Santa Mariako parrokiara joan besterik ez du. «Pezetarik ez baduzue, euroak ere onartuko ditugu».

Pezeta zahar, ilusio berri

Indiako proiektu baterako pezeta zaharrak bilduko dituzte asteartean Santa Maria parrokiako katekesikoek



Ekimena antolatzen aritu diren gaztetxoek pozik eta umoretsu hartu zuten HITZAREN bisita. LEIRE MONTES

BILKETA ▶

Zer. Pezetan bilketa, Indian hainbat proiektu bideratzeko.
Noiz. Asteartean, hilaren 18an, 18:00etatik aurrera.
Non. Santa Mariako parroki etxean.

Ibarrako San Bartolome Misiio Taldeak bideratzen du Indiako proiektua. Ekimen honekin, Santa Mariakoek bat egin nahi izan dute haiekin laguntza eskaintzeko. Gaztetxoek ere badakite hango egoera nolako den. «Haien etxe handiak gure txikiak baino okerrago daude, ez dute gauza handirik», dio neskatok batek; «kalean garbitzen dira, errekan, eta zabor asko dago txoko guztietan», dio besteak; «hiltzerokan ibai sakratura botatzen dute gorpua, eta gero hor bainatzen dira... Ez dago garbitasunik», azaldu du hirugarren batek.

Tolosako eta eskualdeko herritarren diru laguntzarekin zenbait zerbitzu jarri nahi ditu martxan Ibarrako San Bartolome Misiio Taldeak. Ghoga ize-neko eremuan, Gujarateko probintziako ekialdean: 2 eta 5 urte bitarteko umeentzat haurtzaindegia, eskola zerbitzurako aterpe bat, gurasoen bileretako lokala, emakumezkoen formaziorako gela, gazteen kultur programak aurrera ateratzeko gunea, eta guztien zerbitzuak bideratzeko lokala.

Pezeta zahar, ilusio berri. «Guretzat zaharkitua dagoena bizitza berria izan daitekeelako beste askorentzat».

ARETO FUTBOLA ▶

Azken bederatzia minutuetan galdu zuen Laskorainek Sasikoa taldearen aurkako norgehiagoka (3-6)

«Porrot mingarria» da; Iker Telletxeak (2) eta Mikel Altunak sartu zituzten ikastolako golak

ERREDAKZIOA

«Abenduaren 24 turroia, Urte Zahar gaueko otarrainskak edo urtarrilaren 6ko Errege opila ez dira lehengo larunbatean jaso genuen porrotarren errudunak. Ezta epaileak edo zoritxarra ere. Atsotitz interesgarri baten arabera, zoria zentzuz hutsik dagoen hitza da, ezer ez bailiteke izan arrazoirik gabe. Berazubiko gotorlekutik hiru puntuak ihes egin izanak badu azalpen objektibo eta zehatzik: Sasikoa taldea hobea izan zen irabazten jakin zuelako. Ezjakintasuna, berriz, gu-

rea, azken bederatzia minutu tamalgarrietan: 3-2 irabaztetik, 3-6 galtzera pasatu ziren». Saikapeneko goiko postuetan dira Laskorain eta Sasikoa, eta «elkarrenganako begirune handiarekin» ekin zioten partidari. Laskorainek baloi geldiko jokaldietan duen eraginkortasuna erakutsi zuen, eta Domentxeren geldialdiak lagun, 1-0 amaitu zen lehen zatia. Telletxeak sartu zuen gola.

Lehen zatiko seriotasun eta kontzentrazio berarekin atera ziren 2. zatian. Altunak 2. gola sartu zuen; haiek aldea murriztu arren, Telletxeak 3.a egin

zuen. Ondo bideratuta zuten partida. «Baina, ulergaitza izan arren, karta gaztelu bat bezalaxe erraustu ginen hemendik aurrera. Bizkaitarrak haien eskarmentuaz eta gure xalotasunaz baliatu ziren markagailuari itzulipurdi ikusagarri eman eta amaierako 6-3koa ezartzeko».

«Goiko postuetan egon nahi duen talde batek ezin dezake sekula galdu hain aldeko duen neurketa. Altunak huts egindako bi penalti-bikoitzek ere min handia egin ziguten. Zer pentsatu emango digu. Orain garrantzitsuena txalupa zuzentzea da, nora eta nola arraune-

an egin nahi dugun erabakiz», diote. Hauek dira «Berazubiko itsaso haro eta zakarrean galdu ziren marinelak»: Iñaki Egizabal, Javier Saldias, Gorka Amatriain, Jorge Alonso, Urko Alonso, Mikel Altuna, Unai Barriola, Unai Domentxe, Andoni Saldias, Iker Telletxea eta Eneko Yustos. «Ziur gara saikapeanean lurmuturrean arkitzen den faroaren argia laster aurkituko dugula».

Gainontzeko taldeen emaitzak: Arregiren mutilek eta Alonsotarren neskek 2-4 eta 2-3 galdu zuten; Otxoaren taldeak 5-2 irabazi zuen

FUTBOLA ▶

Igor Jauregik agur esan dio aurtengo denboraldiari

ERREDAKZIOA

Igor Jauregi Realeko futbolariak ez du denboraldi honetan gehiago jokatuko. Atzoko entrenamenduaren ondoren eman zuen albeste Eduardo Escobar medikuak eta Finlandiara sendagile espezialista batengana ebakuntza egitera joango dela erantsi zuen. Denboraldia hasi zenetik ez du ia jokatzeko aukerarik izan, eskuin zangoan duen tendinitis baten eruz. Ebakuntzaren ostean, guxtienez lau edo bost hilabete beharko ditu Jauregik guztiz osatzeko.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

PNV-EA ez da emandako hitza betetzen ari

Kiroldegiaz eta Alkartasuna helduen egoitzaz bi hitz: 2003ko udal hauteskundeetan, Anoeta-ko PNV-EAk egun eraikitzen ari den kiroldegiarekin bat egin zuen dudarik gabe. PNV-EA koalizioaren programan, orduan egitasmoa zen kiroldegiko maketaren argazkiarekin batera honela zioten: «Kiroldegia eta kirol eremu berriak. Kiroldegia eraiki eta bertan aktibitateak sortu: muskulazio makinak,

yoga, aerobik, judo, gimnastika eta abar. Bere inguruan futbol zelai bat eta piztina egiteko eremua egokituko dugu».

Orain, ordea, proiektu berdinari «kiroldegia» deituz honela diote: «Obra honi faraonikoa ere dei geniezaioke. Gogoratu duzuen bezala ikastolak gimnasio irekia behar zuen, eta gure ahalbideen esku egon zitekeen proiektu apal horretatik denok ikusi dezakegun tamainako polikiroldegira pasa gara. Tolosan tamaina handiko kirol gune bat eraikitzen ari direla ikusirik, eta Villabonan igerilekua duen kiroldegi bat dugula ikusirik».

Bestalde Alkartasuna herri-ko helduen egoitza berriaz, honela zioten: «Helduen egoitza berria antolatuta. Gure esker ona merezi dute eta. Taberna zerbitzua bermatu behar da eta beste zerbitzu batzuk sortu behar dira (dinamizatzailea, ilepandegia, podologo...)». Entzun ondo! Orain ordea egoitzaren garbiketa eskaini zaie soilik helduei.

Non da PNV-EAk eta Fidel Azpirozek emandako hitza? Bartzuk gogoan dugu eta duda egiten duenak egiaztatu dezala mesedeaz.

MANU ODRIOZOLA (ANOETARROK AUZOLANEA-EN IZENEAN) ▶ ANOETA

ADUNA ▶ GIZARTEA

Uztartzaren ateak berriro irekiko dituzte bihar arratsaldean

Asteasun bizi diren Pili Kortajarena eta Asier Aizpurua sukaldariak hartu dute aterpetxe-jatetxearen ardura

IMANOL GARCIA

Pili Kortajarena asteasuarra eta Asier Aizpurua donostiarrak izango dira hemendik aurrera Uztartza aterpe-jatetxearen arduradunak. Bihar inaurragio ekitaldia egingo dute, 19:00etatik aurrera, eta mokadutxo emango zaie bertan azaltzen direnei. Larunbatean betiko ordutegiarekin ekingo diote «ilusio handiarekin».

Uztartzaren lehiaketan zehazten zen bezala, hamar urtetarako akordioa sinatu dute Udalarekin. Asteasun bizi den bikotea hostalaritzan aritu da betidanik. Bi sukaldariak Lasarteko Txixardin Beltza jatetxean elkar ezagutu ziren, hain justu. «Beti besteentzako aritu gara lanean eta baguenen gogo gure negozioa hartzeko, guretzako lana egiteko», azaldu diote HITZARI.

Jatetxeari dagokionez, eguneko menua emango dute asteazkenean eta larunbatean goizeetan. «Inguruan lantegi dexente



Pili Kortajarena eta Asier Aizpurua, arduradun berriak. I. GARCIA

daude» arrazoitzen dute. Asteburuetan karta emango dute eta egunero plater konbinatuak edo otartekoak eskatzeko

aukera izango da. Sukaldean izango dira lanean, beraz, bi arduradunak. Tabernan, berriz, aurretik aritzen ziren bi langilek jarraituko dute.

Azken egunotan guztia atontzen jardun dute eta margolariak azken ikutuak ematen ari dira, Uztartzaren aro berria itxura aldatzarekin hasteko. Gogoz daude ateak noiz ireki-ko eta guztia lehenbailehen martxan jartzeko.

VILLABONA ▶ MUSIKA



Jesusen Bihotza parrokiako organoa. HITZA

Organo kontzertua larunbatean parrokiarian

Instrumentuarekin esperientzia luzea duen Loreto Aramendi oriotarrak eskainiko du

I. GARCIA

Organo kontzertua eskainiko du Loreto Aramendi organo joleak etzi Villabonako Jesusen Bihotza parrokiarian, 19:45ean. Lau konposizio entzun ahal izango dira kontzertuan: Charles Tournemire-ren *Victimae Paschali* buruzko inprobisazio korala; Cesar Franck-en *Preludio, fuga eta bariazioa*; Fran Liszt-en *Bachi buruzko prelude eta fuga*; eta Maurece Durufle-ren *Veni Creator-ri buruzko prelude, adagio eta korla bariatua*.

Loreto Aramendi oriotarrak

ibilbide luzea darama organo ikasketan eta emanaldiak ematen. Bederatzi urterekin hasi zituen ikasketak. Besteak beste, Pariseko Goi Kontserbatorioan eta Lyongo Goi Kontserbatorioan aritu da ikasten. Bestalde, Foru Aldunditik bi urtetarako jaso du beka. Emanaldiak eskaini ditu Musika Hamabostaldian, Musika Ateneoan, bai bakarlarri gisa eta baita talde ezberdinekin arituz, Kontakarion, Hemiola eta Le Badinage-kin, esaterako. Bestalde, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin kolaboratu du hainbat alditan.

ANOETA ▶ UDALA

Bete gabe geldituko da Juan J. Martinen kargua

Herriko udalbatzak zortzi zinegotzirekin jarraituko du legealdia bukatu arte

I. GARCIA

Aurreko urte bukaeran egingo dako udal bilkuran, gai ezberdinak jorratu ziren. Horietako bat Juan Jose Martin Zubelzu zinegotziaren dimisioa izan zen. Udalbatzak onartutakoaren arabera, Martin Zubelzuz utzitako kargua ez du inork beteko legealdi osoan. Beraz, legealdia bukatu arte zortzi zinegotzi izango dira Udalbatzan.

Bilkuran jorratutakotako beste puntu batean, Donostiako bigarren epaitegiak 196/2004 auzian hartutako erabakiaren berri eman zen. 2003ko azaro-

an Udalak Guardia Zibilari eta Espainiako ejerzitoari buruz onartutako mozioaren aurka errekurtsioa aurkeztu zuen fiskal-kin jorratu ziren. Horietako bat Juan Jose Martin Zubelzu zinegotziaren dimisioa izan zen. Udalbatzak onartutakoaren arabera, Martin Zubelzuz utzitako kargua ez du inork beteko legealdi osoan. Beraz, legealdia bukatu arte zortzi zinegotzi izango dira Udalbatzan.

Beste puntu batean, Anoeta-ko Ikastolari 2004. urteko aportazioa ematea onartu zuen Udalbatzak. 84.000 euroko —14 milioi pezeta inguru— diru laguntza emango zaio ikastetxeari.

AGUSAN-EREN JATEKAK

Bihar, ostirala inaugurazioa

Euskalerrri plaza, 6 • TOLOSA
Tel.: 943 65 10 59

INGURUGIROA ▶

Aralarko Estazio Megalitikoa ezagutzera emateko panelak

Aralarren dagoen ondare megalitikoaren berri emateko eta beraien kokapena zehaztuz bisita errazteko panelak mendizerraren sarrera puntuetan jarri dituzte



Amezketeta, Beratzeagan (minatara joateko bidean) jarri dute informazio panela. O.ESKIXTABEL

OLAIA ESKIXTABEL

Aralarko mendian Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan hedatzen da; bertan, 80 megalito baino gehiago (trikuharri, tumulu, menhir...), daude katalogatuta. Horiek, Aralarko Estazio Megalitikoa osatzen dute. Gipuzkoako Lurralde Historikoko horietako 30 aurkitzen dira; Eusko Jaurlaritzak Saikatutako Kultur Ondasun gisa deklaratu dauzka Monumentu Multzoz izendapenez.

Orain dela gutxi, Aralarko sarrera guneean, zonalde horretan aurkitzen den Estazio Megalitikoaren berri ematen duten panelak jarri dituzte. Zazpi panel, guztira. Ekimenaren helburua, ondare megalitikoaren berri eman eta beraien berri emanez, ezagutzera bultzatzea litzateke.

Panelak jartzeko diru laguntza Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jarri du; diseinua, berriz, Aranzadi Zientzia Elkarte Historiarrak burutu du. Instalazioa, berriz, Aralarko mendizerraren inguruko eskualdeko hainbat udaltek egin dute; Amezketako eta Abaltzisketako udalek, hain zuzen ere. Enirio Aralarko Mankomunitateak ere lagundu du lan horretan: «Guztiekin, proiektu-

tu laguntzeko erabateko prestutasuna erakustez gain, beharrezko giza material baliabideak jarri dituzte», azaldu dute Aranzadi Zientzia Elkartetik.

Bi panel, eskualdean

Aralarko mendiaren sarrerean jarri dituzten zazpi paneletik bi eskualdean kokatzen dira; Amezketan eta Abaltzisketan, alegia. Amezketan, Beratzeagan jarri dute panela (minatara bidean hasten den tokian); Abaltzisketan, berriz, Zamaoko atsedenekuan aurkitzen da panela (Larraitzen, Txindokirako igoera hasten den atsedenekuan).

Panel bakoitzean Aralarko mendiaren (Gipuzkoako alde) airezko argazkia jasotzen da; bertan, zonalde horretan aurkitzen diren monumentu megalitikoak zehazten dira. Horretaz gain, monumentuak ezagutu eta bisitatzeko gozatzeko jarraitu beharreko bidea eta zazpi panelen kokapenaren berri ere ematen da. Euskarazko eta gaztelarazko testu bat irakur daiteke. Eta hainbat megalitoren argazkien laguntzarekin, historiarrak gertaeraren inguruko oinarritzako printzipioak azaltzen dira.

Amezketako trikuharriak

Gipuzkoan, 250 aztarnategi megalitiko aurkitzen dira. Aralarko zonaldeari dagokionez, aurkitzen diren bi trikuharri Amezketako muga administratiboaren baitan kokatzen dira; Larrondoko eta Urritzako trikuharriak dira. 1917an Jose Migel Barandiaranek eta 1981ean F. Leizaola aurkitutakoak, hurrenez hurren.

Larrondo izenez ezagutzen den tokian, Otaskar-lepotik gertu, Urritz txabolatik —Albitzuriko borda izenez ere ezagutua— 250 metrora aurkitzen da.

Urritzako trikuharria, Urritz zelaiean aurkitzen da izen bereko txabolatik 150 metrora.

Bi monumentuak Neolito-Brontze garaikoak direla pentsatzen da.

Hasieran aurkitutako trikuharrietan indusketak egin zituzten, baina azken aldera aurkitutakoetan Aranzadi elkarteok bere horretan utzi dituzte. Hildakoak beren baliozko tresnekin batera lurperatzen ziren; eta altxor-bilatzaileek megalito hauetariko asko profanatu izan dituzte aurreko garaietan; izan ere, ahozko tradizioari jarraituz, hilobiak ez ezik, altxor-ekzutalekuak ere bazirela uste baitzuten. Beraz,

Aranzadikoak iritsi aurretik, kasu gehienetan baliozko gauzak eskuratu nahian, beste norbait ibili izanaren susmoa dago. Industu diren monumentuetan, 80 gizakien gorputzkinak aurkitu dituzte. Aralarren aurkitzen den Jentilarrin, esaterako, 27 aurkitu zituzten; horietako hamar bertan utzi dituzte (hiru haur eta bi adineko aurkitzen dira tartean). Larrondoko eta Urritzako trikuharrietan indusketa arkeologikoa egiteke dago.

Hilobi-monumentuak

«Trikuharriak gure herriko lehen arkitekturak dira», diote Aranzadi elkarteak kideek. Kalkolitikoan eta Brontze Aroan artzain giroko giza taldeek eraikitako hilobi-monumentuak dira.

Hilobi-ganbera bat eratzen zuten zutik jarritako harri zabalaz eginak, gehienetan, beste harri zabal batez estaltzen ziren.

Paneletan bertan azaltzen denez, «ganbera barruan hildakoak ehorzten zituzten beren armekin eta lanabesekin, elikagaiekin eta zeramikazko hainbat ontzirekin». Hainbat tumulutuan ez da ganberarik izaten, hilobi-helburu bera bete arren.

Borobilean jarritako harriz osatutako megalito bakar batzuk ere badaude Aralarko Estazio Megalitikoan; beste hainbat monolito edo irauharri ere badira, «zuten helburua ezezaguna bada ere».

Jarritako panelei esker, Aralarren aurkitzen diren monumentu megalitiko berrak buruz gehiago jakiteko aukera izango dute interesatuek. Aranzadi elkarteak zehazten duen bezala, «ondare horiek guztiak ezagutzea, errespetatzea eta zaintzea ezinbestekoa da guztiok monumentuetaz gozatzeko jarraitzeko eta etorkizuneko belaunaldiak altxor hau helarazteko».

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

KOMUNIKABIDEAK

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888

▶ Karrape Irratia: 948 610914

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, J. Martin Jose

Iraola 10. 943 672438.

Larraia, M.I. Elbarren 95

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info



LIZARBI

Kutxa, mahai, aulki etab.

Altzariak • Zurgintza orokorra

Tailakesuz eginak Zaharkinen herriztatzea

San Esteban auzoa

Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

Ur deposito berria eta etxebizitza tutelatuen obrak abian dira

Hamabost egun barru hasiko dituzte etxebizitzaren obrak; sei hilabetetan amaituko dituztela bi obrak espero dute



Ur deposito berria zaharraren parean jarriko dute eta sei hilabete barru martxan izatea espero dute. I.T.

IÑIGO TERRADILLOS

Behin aurrekontuak onartuta eta lana egingo duten izena eta baldintzak zehaztu ondoren berehala, hamabost egun barru, dira hastekoak *Martintxo* baserria zena zaharbertzeko obrak Belauntzan.

Aspalditik hutsik egon izan den baserria da *Martintxo*, eta orain, herritar guztien eskura egongo den proiektua bideratuko dute bertan. Izan ere, bi etxebizitza tutelatu egokitzeko lanetan hasiko dira egun gutxi barru. Bi pisu hauek pertsona adinduei zuzenduta izango dira bereziki, baina bazterturik daudenean, edo epe baterako etxebizitza behar dutenek ere beraien eskura izango dituzte.

Obra hauek bideratzeko bi diru laguntza nagusi jaso di-

tuzte Belauntzan; bata Kutxaren Gizarte Ekintzaren eskutik, hau da, Kutxazabal programatik, eta bestea foru aldunditik jasotakoa.

Kutxazabalek 30.000 euroko laguntza eman dio herriari proiektu hau bideratzeko. Belauntzaren kasua bezala, Gaztelu, Leaburu-Txarama eta Orexa ere lagundu ditu Kutxaren Gizarte Ekintzak antzerako proiektuak aurrera eramateko.

Antzerakoa izango da Foru Aldunditik iritsiko den laguntza. Hurbiltzen programa aipatu behar da hemen; honen xedea 2000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrian gizarte baliabideen sarea hobetzea da. Gipuzkoan 48 udalerri daude landa eremuan (udalherri guztien erdia baino gehiago) eta horietan 33.800

biztanle inguru bizi dira (Lurraldeko biztanle guztien % 4,95). Bestalde, Hurbiltzen programa bi talderi zuzendua dago, adinekoei eta ezinduei.

Ur deposito berria

Arazo handiak izan dituzte orain arte herrian zegoen ur depositoarekin, baina badirudi laster konponduko direla hasiak baitira ur deposito berriaren obrak.

Arazo hauek udan areagotzen ziren bereziki, kamioiak erabili behar izaten baitzituzten ura eramateko eta tuberiak zaharrak izanik ur asko galitzea eragiten zuten.

Bai bi etxebizitza tutelatu obrek, bai ur deposito berriarenak, sei hilabeteko iraupena izango dutela adierazi dute.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Lebururako errepedean aldaketak egingo dituzte laster. HITZA

Lebururako errepedean hobekuntzak egingo dira

Espaloia jarriko dute eskuin aldean; argiak herri osoan ipiniko dituzte Eguberrietan

I.TERRADILLOS

Ibarrako Otarreaga eta Apaiz-Errekako bizilagun batzuen zenbait kexa eta idatziren berri izan ondoren, Ibarrako Udalak erantzuna luzatu nahi izan die.

Izan ere, berri onak dituztela bizilagun hauentzat diote Udaletik, eta badirudi denbora luzez eskatzen egon direna, errepedea konpontzea, alegia, azkenean bete ahaliko dela.

Errepide sailarekin solasaldi luzeak izan ondoren, eta sail honek eskatutakoa egiteko eta finantzatzeko ezintasunaren aurrean, udalbatzak inguruko ibilgailuek bizi duten egoera latza jakinda eta kalte handiagoak eragozteko nahiarekin, Leaburura igotzen ura eramateko eta tuberiak zaharrak izanik ur asko galitzea eragiten zuten.

Bai bi etxebizitza tutelatu obrek, bai ur deposito berriarenak, sei hilabeteko iraupena izango dutela adierazi dute.

dela aipatu dute agintaldi honen hasieratik.

Eguberrietako argiak

Leaburura doan errepedearen inguruan dituzten kexa eta iradokizunez gain Otarreaga eta Apaiz-Errekako bizilagunek izan dute bestelako konturik eta hauek ere erantzun nahi izan dituzte Ibarrako Udaletik.

Badirudi, auzo hauetan kexu zirela ez baita egon eguberri hauetan behar bezala argizaturik beste hainbat lekuetan bezala.

Udalak, datorren Eguberrietarako gauzak aldatuko direla gune horretan eta Ibarrako beste guneetan agindu nahi die herritarrei, «izan ere, jadanik hasi gara lanean datorren Eguberrietan herri guztia behar bezala argizaturik egon dadin, herri guztiak merezi duelako eta bizilagun hauek arrazoia dutelako», azaldu dute.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 69 19 33.

Sukaldaria eta tabernaria.

Sukaldaria eta tabernaria behar dira.

Deitu 15:00etatik aurrera. 943 68 21 54.

Tolosa. Kamarera behar da, esperientziarekin, astean bi arratsaldetan lan egiteko. Deitu 943 67 04 46.

Anoeta. Neska euskalduna behar da Anoetako taberna batean lau orduz lan egiteko. 635 74 52 91.

ALOKAIRUA

Tolosa. Garaje ixkia alokatzen da.

Interesatuak deitu 609 43 59 07 zenbakira.

GALDUTAKOIA

Fularra. Larruzko fularra galdu zen larunbat goizean Alegiako San Joan

kalean. 943 65 06 54. Sarituko dute.

SALGAI

Etxea. Alegiako Larraituz auzoan etxea salgai. Deitu 680 57 09 52 zenbakira.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA



Landa Behikoan egiten ari diren etxean, garajejo zola botatzen aritu dira aste honetan. JAIONE ASTIBIA

Etxebizitza berriak eraikitzeke orubeak egin dituzte jada

Landa Behikoan 12 etxebizitza berri eraikiko dituzte; Lurrazpian izanen dituen garajeak egiten ari dira

JAIONE ASTIBIA

Landa Behikoa parajeon, Arakindegi aurrean, aste honetan aritu dira eraikitzen ari diren etxebizitzaren zola botatzen. Orubeak finkatu ondoren eraikuntzari ekin diote jada. Bertan, 12 etxebizitza berri egin behar ditu Arremia Etxegintzak, guztiak prezio librekoak.

Eraikuntzak, baxuetatik gora, hiru solairu izanen ditu eta teilatupea. Solairu bakoitzean launa etxebizitza izanen ditu etxeak, bi ezkatzetan banatuta. Beraz, ezker-eskuineta-

ra kokatuta egonen dira etxebizitzak, errepidearekiko paralelo, eraikuntza osoa geldituko den tauri berean. Igogailua ere izanen du.

Teilatupea, hirugarren solairuko parez-pareko etxebizitzentzat, bizilekua handiagotzeko espazio modura izendatuta dago. Baxuetan, berriz, komertziorako baliatu daitezkeen lokalak lituzke.

Eta honen guztiaren azpian, lurpeko garajeak doaz: banaka itxitakoak. Hain zuzen ere, garaje hauen zola botatzen aritu dira aste honetan, egun oso-

oso batez. Kota horretatik gora, jada, etxearen egiturari ekinen diote.

Horrela, azkenean errepidearekiko parez-pare geldituko den etxea eraikitzen ari dira. Aurrealdean, inguru guztian bezala, espaloia izanen du, noski, eta lehen zeuden apartakalekuak berriz ere egin beharko dituzte. Atzekaldean, geroa eraikigarri den etxea artearaino, oinezkoentzat izanen den plaza bat geldituko da, erdian eremu berdearekin, eta lurrazpiko garajetarako sarbidea ere hortik izanez.

LEITZA ▶

Nabarralderen hitzaldia Etxe txuria elkartean

Bihar, hilak 14 eta arratsaldean, 19.00etatik aurrera zehazki, Nabarralde elkarteak hitzaldia eskainiko dute Etxe txuria elkartearen egoitzan. Kasu honetan, Tomas Urzainki da etortzekoa, *Navarra estado europeo* bere liburuararen aurkezpena egitera. Urzainki historialaria da lanbidez eta gogoz ere, eta bereziki landu eta ikertu du Nafarroako historia, berak erabiltzen duen esanahiarekin, Euskal Herrikoa beraz. Bere lanen artean dago esate baterako, 1998. urtean argitaratu eta hain arrakastatsu bilakatu zen *La Navarra maritima* ere, besteak beste. Beti, artxibategietan jasota, edo berak askotan esan izan duen moduan «botata eta zokoratuta» dauden agiri eta idatzietan oinarrituta egin izan ditu bere baieztapenak eta frogak eskutan, aldarrikatzen du Nafarroaren estatu iaizaera.

LEITZA ▶

Gaur Ezker Abertzaleak batzarra du

Gaur iluntzean, 20:00etatik aurrera eta udaletxeko lehendabiziko solairuko aretoan, batzarra burutuko du Leitzako Ezker Abertzaleak. Bertan, honako puntu hauek izanen dituzte mahai gainean aztergai: Ibarretxe Plana delakoa, Europako Konstituzioari buruzko erreferenduma eta Atekabelta. Batzar honetan parte hartzeko deia egin dute, ohar baten bidez.

LEITZA ▶

Aurrerantzean zabor handiak biltzeko egunak zehaztu dituzte

Hilabetan bitan izanen da zerbitzu hau; 012 telefono zenbakira deitu behar da

J. ASTIBIA

Bolumen handiko zaborrak biltzeko hilabetean bi egun egokitu direla eman du jakitera Udalak, argitaratu duen bando baten bidez.

Horrela, hilabeteko bigarren eta laugarren asteazkenetan jasoko dituzte bolumen handiko zaborratz josten direnak, beti ere alde zurretik tankera honetako zerbitzuak emateko kontratatuta dagoen Infocall delakoaren 012 telefono zenbakira deitu ondoren. Hor, norberaren datuak utzi behar dira (izena, helbidea, eta kontakturako telefono zenbaki bat) eta nolako trastea jasotzea nahi den adierazi.

Kalean ez

Hau egin ondoren, bota nahi den dena-delakoa jasotzera, etxera joan omen dira. Edozein moduz, «kalera ez ateratzeko» adierazten du oharrak, jaso baino lehen, kasu askotan «trasteak desmontatu egin behar» izaten omen direla eta. Eta, hoberean, ezkatzean uzteko aholkua egiten dute.

Bestalde, bolumen handiko zaborratz josten direnak zein diren ere argitzen da oharrean, zerranda batean aitatuz. Orohar, altzari, elektrogailu, motor, txirringa... modukoak dira.

Zerbitzua hobetzeko eta arintzeko ere, aurrerantzean bi egunetan egingen dute lan hau, beraz.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Amaroz. 80 m²-ko lurra. 3 logela. Mandio. 669 87 19 09.

Anoeta. Bizitzera sartzeko, bi eta hiru logelarekin.

Berrobi. 90 m²-ko etxebizitza, sukaldea, igogailua, 12 m²-ko ganbara eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 90 m². 41.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Maestro Guri. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua. Mandio. 669 87 19 09.

Ikaztegieta. 2 pisuko villak. 120 m². Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Santa Klaran 111 m²-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m²-koa, igogailuarekin.

Tolosa. Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m²-ko duplexa salgai. 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berria, berogailuarekin. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Foru etorbidean, leku hoberean, erabat kanpo aldera, atikoa, 85 m² + 50 m²-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa, berogailua eta igogailuarekin. 68.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lurre auzoan, 33 m²-ko bokoa, 10.000.000 pta, tartepiantan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalea. Duplex. 2 logela. 26.000.000-28.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09

Tolosa. Amaroaz auzoan, etxebizitza salgai 80 m²-rekin, igogailuarekin, 37.500.000 - 40.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09

Tolosa. Triangulua. Zentrikoa. 4 logela eta bi

bainugela. Informazio pertsonala.

Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Zumalakarregi. 3 logela, igogailua, kalefazioa... Mandio. 669 87 19 09.

Tolasaldea. Etxebizitza berriak. 1 eta 3 logela. Garajea marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Zaldibia. 40 m². Kanpokaldea. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

NEGOZIOAK

Ileapaindegia. Ileapaindegia alokatzeko. 90 m². Guztiz diseinatu. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinemaren inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremonteari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²-ko pabilioi berria, ate bikotizarekin eta sarbide egokikoa, saihesbide ondoan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lokalak salgai, Laskorain kalean, Rondilla kalean, Erremontari kalean, Triangulean eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

Villabona. Lokal berria, 35 m², sukaldetz hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 13a, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abuztasaketa, Adura, Abotzur, Alege, Alkiza, Altxo, Amerieta, Anotoa, Balarman, Bebasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Itina, Larrami, Leizola, Lizaso, Oihenain, Orens, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
besteirik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurjaritza, Kultura Saia

943

ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: ez

Albi: ez

Pagomari: ez

Igaratza: ez

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. KZgunea irekita izango da bihar 9:00etatik 13:00etara. Tutorea bertan izango da.

Anoeta. Eguberrietako pinu naturalak jasoko dira konposterako birziklatzeko. Zaborra uzten den ohiko tokietan utzi behar dira, kontenedoreetan sartu gabe.

Leitza. Mendiaz eta naturaz argazki rallya, ilbeltzaren 15 baino lehen. Oinarriez galdetzeko, deitu 948 510 814 telefono zenbakira.

Tolosa. Inauterietako Danborradan aterako diren nesken bilera izango da Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Tolosa Bizirik herri ekimenaren batzarra izango da udal batzar aretoan 20:00etan. Jendea azaltzea eskatzen dute.

Tolosa. 2005 denboraldiko arrantza federazioko lizentzia jaso daitezke gaur 19:00etatik 20:30era Tolosako Arrantzaleak elkartearen egoitzan (Soldadu kalea).

Tolosa. Udaleko Gizarte Zerbitzu Departamentuak kontu korronte bat ireki du Asiako hego-ekialdean izandako itsasikarak eragindako kalteak arintzen laguntzeko: Kutxa 2101 0067 2000 1018 2384.

Tolosa. Hiribusaren tarifa eta abono berriak daude urte hasieratik. Bidai bakoitzeko 0,50 euro, 60 bidaiko abonoa 15 euro eta urte osoko abonoa 100 euro. Mugikortasun bulegoan (Gorosabel 48).

Tolosa. Ingurumen Departamentuak Gabonetako pinuen bilketa kanpaina antolatu du, konposta bihurtzeko eta ongari gisa lorategietan erabiltzeko. Edukinontzi bereziak daude *Bota piñue* leloarekin herrian zehar.

Tolosa. Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak CNC fresadora programatzea, CAD 3D (Solid EDGE) eta analisi kontablea ikastaroetan plazarik daudela jakinarazi du. Doan dira.943 65 11 47.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Sophie Coppolaren *Lost in translation* filma ikus ahal izango da zine-klubean, Leidorren 21:30ean.

Sagardoa kantari dator

TOLOSA ▶ Ainhoa Arteta soprano tolosarrak ireki zuen atzo sagardo denboraldia; «betidanik» gustatu zaio eta munduan zehar zabaldu du



Ainhoa Arteta 2004ko uztako sagardo berria kupeletik hartzen atzo Astigarragak Petritegi sagardotegian. JON URBE/ARGAZKI PRESS

ERREDAKZIOA

Sagardoa «inoiz baino kantariagoa» datorrela esan zuten atzo bertso-tan Sebastian Lizaso eta Andoni Egafia bertsoariak Astigarragako Petritegi sagardotegian. Zergatik? Ainhoa Arteta soprano tolosarra izan zelako denboraldi irekiera ekitaldiko gonbidatu berezia.

«Betidanik gustatu izan zait sagardoa. Etxean beti izan dugu eta kanpora joaten naizenean beti zabaldu dut bere ize-

na, hemengo beste gauza asko bezala. Eta kanpotik etortzen diren lagunak beti sagardotegian batera eramaten saiatzen naiz, gure ohiturak ezagut ditzaten», adierazi zien Artetak ekitaldian bildutako kazetari ugariei. Euskal edari honen enbaxadore ona aukeratu dute beraz aurten sagardogileek.

Kupela ireki eta lehen txotx egiteko unea ez zuten behar bezala harrapatu argazki eta telebista kamerek eta berriro hartu behar izan zuen sagardoa soprano tolosarrak. Urte-

roko «gure sagardo berria» hitz magikoak esan eta tragoka eman zion. Edandako sagardoa —2004ko uztakoa— gustatu egin zitzaion.

Ondoren kazetariekin egindako solasaldian gripe pixka batekin dagoela azaldu zuen Ainhoa Artetak, baina gustura agertu zen: «Eman dizkidaten sari eta oparien artean hau oso berezia da. Sagardogileek ni aukeratzea oso pozgarria izan da niretzat».

Bertsolariekin batera, txalartarien eta aurrekularien

saioa ere izan ziren Petritegi sagardotegian, sopranoaren omenez. Kazetariez gain, jende mordoak bildu zen. Ondoren bazkaria izan zuten sagardotegian bertan.

Aurreko urteetan, besteak beste, Abraham Olano txirrindulari anoetarra eta Xabi eta Mikel Alonso futbolari tolosarrak izan dira gonbidatuak ekitaldi honetan.

Aurten hamabost milioi litro egin dituzte sagardogileek, horietako erdiak Astigarraga inguruan.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aratz Iraeta (Bidegoian).
Gaur 2 urte. Zorionak guraso eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Pakita Zestau Zabaleta (Leitza).
Gaur 80 urte. Urtek pasa eta pasa eta inoiz baino indartsuago! Saioa eta Oihana.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!